

Soldaduzka Euskal Herrian

Euskaldunon Egunkaria, 1991-07-03: 3.

Euskaldunok, beste alderdi askotatik begiratuta bezala, Frantziako eta Espainiako soldaduzkak dituen gora-beheretatik badugu historian zehar eta sentimendu aldetik ere berizitasunik.

Hara hau adierazteko lau puntu:

1. Herriak ez ziren Armada, jeneral eta guzti berekin zituztela jaio; beste instituzio asko bezala, honek ere baditu gizatiaren historia orokorrean bere sorrera eta etorkizuna adierazten dutenik. Herriak eratzeko prozesu luzeetako borroketan, herria eta armada gauza bera ziren; istilu bat sortzen zenean, herri osoa zen ahal zuenarekin borrokatzen zena. Estatuak sortzen joan ziren bide beretik hasi ziren Armada jerarkizatuak eratzen; denak defentsarako bakarrik zela esaten zuten, baina tranpa hau ezaguna da, eta, gaur bezalaxe, zenbat eta handiago eta aberatsago, gizon eta erasorako armaz hornituago; biak erosten baitziren, herrian eta atzerrian; hau da mertzenarioek osatutako armaden hasiera. utzi dezagun hau honela.

2. Euskal Herrian, garai honetako gerrei nola aurre egiten zien kontuarazteko, nahikoa da Larramendik bere XVIII. mendean Gipuzkoaz ematen digun lekukotasuna kontuan hartzea: "Gerra-diputazioak aukeratzen du bere mende egongo den Coronel-Generala; honen mende dauden kabuak, Sargento Mayor-en kargua dute tropen buru. Tropa hauek denak gipuzkoarrak dira, konpainietan eratuak bere kapitain eta barru-ofizialekin; hamazortzitik hirurogei urte bitartekoak dira. Gerra-diputazioak, Hernanin du bere Plaza. Harritzekoa da gipuzkoarrek armak zein azkar hartzen dituzten, bere kabu, banderak, txistu eta danborrekin. Honela egin da, gure herriak gogoan dueneraino tropa biltzea gure herrian" ("Del Gobierno Militar de Guipúzcoa", *Corografía de Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1969, pp. 109 y ss.).

3. Argentinan euskal lanetan aritu ziren hiru gizonen artean (Kindin de Muxika, Jose Ramon Zubillaga eta Antonio Arza), Kindin Idiazabalgo "Muxikarenan" 1887an jaio eta Argentinako Mar de Ajónen 1974an hil zena, 1906an heldu zen Argentinara, beste asko bezala, soldaduzkatik ihesi. Urte honetako maiatzean egin zen Algeciras-eko Konferentzia deitzen diotena, eta harrez gero bigarren gerra karlista (1876) amaitu ondoren ezarri zion Espainiak Euskal Herriari urteroko soldaduzkako kintetatik zati handiena Afrikara bidaltzeko zigorra; eta Kindinek esaten zuten bezala, bere aitak "Nahiago izan zuen bere semea Ameriketara joan zedin mairuak hiltzera baino". ("Tres cultores euskéricos desaparecidos en Argentina". *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*. Buenos Aires n. 111, octubre diciembre 1977).

4. Hemendik aurrera ez dut euskaldunen artean Afrika-rako bide hau markatzeko inongo erreferentzirik behar, etxeok ditut nahiko; Nire aita Pello hara eraman zuten;

Ceuta, Tetuan eta Melillakoak aipatzen zituen etxean; eta ez maitasunez. Ez zuen mairuen aurka ezer; haiengana bidali zutenen kontra baizik.

Espainolagandik honelako erasoak jasan behar izan zituen, gizarajoak.

Eskutik meza nagusira naramala behin baino gehiagotan entzun diot, tranbearen kableak eusteko errepidearen alde batetik besteraino zeuden tiranteen erdian jarri zuten metalezko bandera txiki bati begira esaten: "Piper-poto alu hori". Orduko piper potoa bandera horretaz inguratuak etortzen baitziren.

Ez nuen neuk asko pentsatzen orduan, betiko toki beretik!, zer etorriko zitzaigun gainera, eta aita eta anaia gerra ondoko bidai luzean zebiltzala, ni neu, alemanak bota ninduten 1940an bizilekua galdu genuen hegoaldeko "etxera", Andoaina, han bidaltzen naute 1942an, neroni, merkantzia-tren batean itxita beste euskaldunekin, andoaindarrak pillotxo bat, hiru egunez Algeciras zezen plazara eguzki bizitan, eta geroztik jeitsi ez zen eguzkitako Tetuan (aitaren "Recaina" kuartel berdinerara: "alajainkoa!" aitak ezin baitzuen sinetsi ni Caracaserara heldutakoan kontatu nizkionean!), Tetuan, Alcazazeguer, Tzelata de Anyera, Targist, hiru urteko destinora.

Gaurko intsumisoak! Andoainen bakarrik ba omen dira berrogei! Ez naiz batere harritu orain nire herriko lagun baten semea, Imanol Huizi, paperetan ikusi dudanean! Ni bandera juratzen jarri ninduten hartan nire barrurako zer esan nuen igarri izan bazidaten, neu ere sartuko ninduten haise gartzelan!